



Memoria

2021

**KABIA foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak onartua**

**Donostia, 2022ko uztailak 28**

## A U R K I B I D E A

<b>1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK</b> .....	<b>1</b>
1.1. ZERBITZUAK .....	1
1.2. ERABILTZAILEAK .....	2
1.2.1 Eguneko zentroak .....	5
1.2.2 Egoitzak.....	7
1.2.3 UPSiak.....	8
1.2.4 Aldi baterako egonaldiak .....	9
<b>2. COVID-19</b> .....	<b>10</b>
2.1. PANDEMIAREN ERAGINA .....	10
2.2. ORDIZIAKO COVID ZENTROA ETA BILAKAERA .....	13
2.3. COVID 19 PLANA.....	14
<b>3. BATERATZE PROZESUA ETA AZKEN EGOITZAREN INTEGRAZIOA</b> .....	<b>14</b>
<b>4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA</b> .....	<b>16</b>
4.1. GASTUAK.....	16
4.2. DIRU SARRERAK.....	17
<b>ERANSKINA. KABIAKO KUDEAKETA PLANA: HELBURUEN BETETZE MAILA</b> .....	<b>18</b>

2021. urtea berezia izan zen osasun larrialdi egoera dela eta, 2020ko urtearekin alderatuz ezberdina, baina normaltasunera itzuli gabe. Egoera horrek KABIako jardura eta plangintza bereziekin jarraitzea beharrezkoa izan zen, eta une oro eskumena duten erakundeek ezarritako jarraibideak bete eta haiekin koordinatuz lan egin zen. Lehenetasuna egoiliarak babestea eta zaintzea izan zen, helburu hori lortzeko alde batetik, langileei babes neurri eta baliabide egokienak eman, eta bestetik normaltasunerako pausuak pixkanaka emanez.

Egoitzen integrazioari dagokionez, azaroaren 1ean 16. eta azken egoitza sartu zen KABIAN, Hernaniko Santa Maria Magdalena egoitza hain zuzen ere.

## 1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK

2021eko azarora arte KABIak 15 egoitza kudeatu zituen eta 2021eko azarotik aurrera Hernaniko Egoitzaren integrazioaren ondoren KABIA osatzen duten 16 egoitzak kudeatzera pasa zen ondorengo ezaugarriekin.

### 1.1. ZERBITZUAK

2021an KABIak ondorengo zerbitzuak kudeatu zituen. Aipatu behar da pandemia dela eta Irun eta Villabonako eguneko egonaldiei dagozkien zerbitzuak etenda jarraitu zutela.

Egoitza	Oinarrizko plazak	UPSI plazak	Egoitzako plazak guztira	Eguneko zentroa plazak	Tutoretzapeko apartamentuak plazak
Andoain	95	-	95	-	-
Arrasate	104	-	104	-	-
Azkoitia	54	14	68	20	12
Bergara	81	18	99	-	-
Eibar	95	-	95	-	-
Elgoibar	48	-	48	-	-
Errenteria	127	15	142	-	-
Hernani	79	32	111	60	-
Irun	70	-	70	15	-
Lasarte-Oria	42	15	57	25	-
Oñati	68	15	83	30	-
Ordizia	58	-	58	-	-
Pasaia	40	-	40	15	-
Tolosa	147	-	147	-	-
Villabona	39	-	39	4	-
Zumaia	52	-	52	-	-
<b>Guztira</b>	<b>1199</b>	<b>109</b>	<b>1308</b>	<b>169</b>	<b>12</b>

Osasun larrialdi egoeraren ondorioz hartu beharreko neurrien artean, egoitzetan hainbat plaza bete gabe utzi behar izan ziren.

## 1.2. ERABILTZAILEAK

KABIAK 1894 pertsonari eman die arreta 2021.

Urteko alten eta bajen kopuruetan alderaketak egon dira, guztira 596 baja egon ziren eta 707 alta. Unean uneko Covid egoera dela eta, sarrera batzuk geldituta egon ziren. Hala eta guztiz ere, pandemiatik sortutako plaza hutsak betetzen joan dira 2021. urtean.

Hurrengo taulan zerbitzu bakoitzeko alta mugimenduak ikus daitezke:

Eguneko zentroa	Egoitza	UPSI	Aldi baterako egonaldiak	GUZTIRA
132	438	47	90	707

Kabiako erabiltzaileen gehiengo profila honakoa da: batez beste 86.7 urte dituen emakumea eta mendekotasun larria duena.

Kabiak artatzen dituen pertsonen artean %71 emakumeak dira. Erabiltzaileen batez besteko adinari dagokionez, emakumeak gizonak baino zaharragoak dira; gizonen batez besteko adina 82.6 urtekoa da; emakumeena, aldiz, 86.7 urtekoa.

	ZERBITZUA	SEXUA	
		EMAKUMEA	GIZONA
ANDOAIN	EGOITZA	88,3	84,4
ARRASATE	EGOITZA	86	82,4
AZKOITIA	EGOITZA	86,1	82,3
	EGUNEKO ZENTROA	82	81,6
	UPSI	89,6	67
BERGARA	EGOITZA	87,8	84,5
	UPSI	85,8	85
EIBAR	EGOITZA	88,6	84,5
ELGOIBAR	EGOITZA	87,7	80,9
ERRETERIA	EGOITZA	87	84,4
	UPSI	87,8	80,8
HERNANI	ALDI BATERAKO EGUNEKO ZENTROA	84	86
	EGOITZA	87,7	81
	EGUNEKO ZENTROA	84,2	85,9
	UPSI	83,2	83,4
IRUN	EGOITZA	88,1	83,4
LASARTE-ORIA	EGOITZA	86,5	84,1
	EGUNEKO ZENTROA	86,1	83,8
	UPSI	86	80
OÑATI	EGOITZA	88,4	82,1
	EGUNEKO ZENTROA	84,9	79,8
	UPSI	85,7	89,5
ORDIZIA	ALDI BATERAKO EGONALDIAK	88,6	81,6
	EGOITZA	90,3	81,6
PASAIA	EGOITZA	87,1	80,8
	EGUNEKO EGONALDIAK	85,9	85
TOLOSA	EGOITZA	88,7	81,5
VILLABONA	EGOITZA	89,4	83,5
ZUMAIA	EGOITZA	87,8	84,1


Orotara KABIako zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzaileen batez besteko adina azken urteetan antzekoa dela ikus daiteke. Kasu guztietan emakumeak dira zaharragoak.

Batez besteko adina									
2017		2018		2019		2020		2021	
E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
86	82	87	83	87	83	88	83	87	83


(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Menpekotasun graduaren arabera, mendekotasun larria eta handia dutenen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke. Aurreko urteetako joera mantentzen da, nahiz eta mendekotasun handia dutenen proportzioa jaitsi den eta mendekotasun larria duten egoiliarrena igo den. Honen arrazoia pandemiaren ondorioz itxaron zerrendetako pertsonen profilaren aldaketa izan daiteke.

**Erabiltzaileak mendekotasun graduaren arabera (2017-2021)**



Zerbitzu bakoitzeko erabiltzaileak bereiztuta ere, gailentzen diren erabiltzaileak menpekotasun maila larria dutenak dira. Ondorengo taulan ikus daiteke:



Hurrengo puntuetan, erabiltzailearen profila zerbitzu bakoitzeko zehaztuta azalduko dugu.

### 1.2.1 Eguneko zentroak


232 pertsonari eman zitzaien arreta.

Zentroak	Azkoitia	Hernani	Lasarte-Oria	Oñati	Pasaia	GUZTIRA
Artatutako pertsonak	18	87	34	47	15	201


Erabiltzaileen profila 84 urteko emakumea da

Adin tartea	Azkoitia	Hernani	Lasarte-Oria	Oñati	Pasaia	GUZTIRA
<65	1	0	0	0	0	1
65-75	2	6	2	12	1	23
76-85	8	39	14	15	7	83
86-95	7	41	18	20	5	91
95>	0	1	0	0	2	3
Batez beste	82	83	85	83	86	83,8






Erabiltzaileen menpekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen % 43ak II mailako menpekotasuna du, mendekotasun maila handiko profila izan da 2021. urtean eguneko zentrotan izan ditugun erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:




### 1.2.2 Egoitzak

Egoitzetan 1416 pertsonari eman zitzaien arreta. Egoiliarren profila 85 urteko emakumea eta menpekotasun handikoa da.




Egoiliarren menpekotasun mailari dagokionean, egoiliarren % 45ak II mailako menpekotasuna du, mendekotasun maila larriko profila izan da 2021. urtean egoitzetan egon ziren erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:




### 1.2.3 UPSIak

UPSletan 143 pertsonari eman zitzaien arreta. Erabiltzaileen profila 84 urteko emakumea eta menpekotasun handikoa da.




Erabiltzaileen menpekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen % 51k II mailako menpekotasuna du, mendekotasun maila larriko profila izan da 2021. urtean UPSletan izan ditugun erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:




### 1.2.4 Aldi baterako egonaldiak

Aldi baterako egonaldiak pandemia dela eta geldirik egon ostean, 2021. urtean zerbitzua martxan jarri zen Ordiziako egoitzan. Guztira 97 pertsona artatu ziren, hauetatik %33 uda garaian izan zirelarik. Erabiltzaileen profila 85 urteko mendekotasun handiko emakumea izan zen.



Erabiltzaileen menpekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen %40ak III mailako menpekotasuna zuen, mendekotasun maila handiko profila izan da 2021. urtean aldi baterako egonaldietan izan ditugun erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikari:



## 2. COVID-19

Pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, KABIA etengabe egokitze prozesu batean murgilduta egon da eta larrialdi egoera horri aurre egiteko beharrezkoak izan diren baliabideak jarri behar izan ditu, Aldundiarekin elkarlanean. Horren ondorioz, 2021. urterako aurreikusita zeuden hainbat proiektu eta jarduera atzeratu edo eta baztertu egin behar izan ziren.

Covid 19ko protokoloak egoeraren arabera eguneratzen joan dira eta egoitzako kudeaketa prozesuak egokitzen joan behar izan dira.

Urtea ilusio handiz hasi zen COVID-19 aurkako txertaketa dela eta. Beronek lasaitasuna ekarri arren, normaltasuna bere osotasunean ez zen itzuli egoitzetara, besteak beste, sektorizazioa, NBE erabilera zorrotza, bisita zein irteeren araudi zorrotza eta abar izaten jarraitu zelako prebentzio neurri gisa.

### 2.1. PANDEMIAREN ERAGINA

Covid 19aren bilakaerak KABIAN izan duen eraginaren inguruko datu batzuk jasoko dira atal honetan. 2021.urtean olatu ezberdinak izan ziren, urte hasieran hirugarren olatuan murgilduta geunden. Ondoren, apirilean, laugarren olatua etorri zen. Bostgarren olatua udaran izan zen, uztailaren bukaeran konkretuki. Urteko azken olatuak hasiera azaro aldera izan zuen eta abenduan indarrez goraka egin zuen.

Egoiliarrei dagokienez, lehengo olatuarekin batera, hau da, 2020 urte bukaeratik zetorren olatuarekin batera, urteko lehen kasu positiboak Tolosako lurreamendi egoitzan agertu ziren, nahiz eta KABIAko beste egoitzetan olatu berebean kasuak egon 2020 bukaeran, hauetako batzuk urte hasieran sendatuak izan ziren. Horregatik ikus genezake olatu honek, egoitza bat baino gehiagotan eragin zuela.

Laugarren olatuak (apirila) KABIAko egoitzetan ez zuen eraginik izan. Udako olatuan (bostgarrena), ordea, 3 egoitzetan agertu ziren kasuak: Irun, Villabona eta Lasarten. Irunen lehenbizikoz sartu zen gaitza egoitzara eta kutsatuen %33a (beste hainbat patologia anitz zituztenak) zendu zen.

2021 urtean seigarren eta urteko azken olatua azaroan hasi zen azaleratzen. Urte honetan, egoitzetan kutsakortasun aldetik eragin nabarmenena izan zuen olatua izan zen. Abenduan eman zen egoitzetan etengabeko kasuen igoera, hilabete horretan Zumaia eta Arrasateko egoitzetan izan zuten hasierako kasuen pilaketa.

Martxotik uztaile bitarte, ez zen egon kasu bakar bat ere KABIAko egoitzetan. 2021 urtean, Azkoitiako, Hernaniko (KABIAN integratu ondoren) eta Ordiziko egoitzetann ez zuten kasurik izan.

Datu hauek aztertuta, 2021.urtean nahiz eta olatu ezberdinak bizi izan, 2020ko datuekin alderatuta, kutsatu kopurua gutxiago izan zen eta baita hildako kopurua ere. Arestian aipatu bezala, txertaketei eta ezarritako neurriei esker, gaitza kontrolatuago egon zela esan genezake.

Hurrengo taulan erabiltzaileei dagozkien datuak azaltzen dira.

<b>EGOILIARRAK</b>			
<i>Egoitza</i>	<i>Kasu positiboak</i>	<i>Hildakoak</i>	<i>Sendatutakoak</i>
	<i>Kopurua</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Kopurua</i>
<b>Urtarrila-Otsaila</b>			
Andoain (San Juan Bataiatzailea)	0	0	2
Hernani (Santa M <sup>a</sup> Magdalena) E.Z.	0	0	2
Oñati (San Martín)	0	1	3
Tolosa (Iurreamendi)	6	1	5
<b>Abuztua-Iraila</b>			
Irun (Ama Xantalen)	18	6	12
Billabona (Santiago) E.Z.	8	0	8
Lasarte-Oria (Atsobakar)	1	0	1
<b>Azaroa-Abendua</b>			
Eibar (San Andres)	1	0	1
Arrasate (Iturbide)	14	0	13
Azkoitia (San Jose)	1	0	1
Bergara (Mizpirualde)	4	0	2
Errenteria (Jesusen Bihotza)	2	0	0
Hernani (Santa M <sup>a</sup> Magdalena) E.Z.	2	2	0
Lasarte-Oria (Atsobakar)	5	0	2
Oñati (San Martín)	8	0	0
Oñati (San Martín) E.Z.	4	0	1
Pasaia (San Pedro)	4	0	0
Zumaia (San Juan)	20	0	0
<b>Guztira</b>			
<b>Guztira 2021</b>	<b>98</b>	<b>10</b>	<b>53</b>
<b>Guztira 2020</b>	<b>341</b>	<b>96</b>	<b>245</b>

E.Z.: eguneko zentroa

Iturria: KABIA eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiketako Departamentua, 2021/12/31.

Langileen kasuan, erabiltzaileekin alderatuta, langileen kutsakortasun maila parekoak izan zela esan genezake 2020 eta 2021. Gizartean ematen ziren olatuek, egoitzetan eragin zuten, gizarteko olatua handitu ahala egoitzetako kasuak areagotzen zirelako. Gainera, garai horretan jada, bisitak kanpoan egitea baimendurik zeuden.

Ondorengo taulan langileen kasu positiboak ikus daitezke egoitzaka bereiztuak:

<i>Egoitza</i>	<i>Kasu positiboak</i>
	<i>Kopurua</i>
<b><i>Urtarrila- Otsaila</i></b>	
Arrasate (Iturbide)	1
Eibar (San Andres)	1
Hernani (Santa M <sup>a</sup> Magdalena)	5
Irun (Ama Xantalen)	2
Lasarte-Oria (Atsobakar)	3
Tolosa (Iurreamendi)	1
Zumaia (San Juan)	1
<b><i>Apirila-Ekaina</i></b>	
Azkoitia (San Jose)	1
Bergara (Mizpirualde)	1
Errenteria (Jesusen Bihotza)	1
Hernani (Santa M <sup>a</sup> Magdalena)	1
Lasarte-Oria (Atsobakar)	1
Tolosa (Iurreamendi)	2
<b><i>Uztaila-Iraila</i></b>	
Andoain (San Juan Bataiatzailea)	3
Arrasate (Iturbide)	1
Eibar (San Andres)	3
Elgoibar (San Lazaro)	1
Errenteria (Jesusen Bihotza)	1
Hernani (Santa M <sup>a</sup> Magdalena)	2
Irun (Ama Xantalen)	7
Lasarte-Oria (Atsobakar)	1
Oñati (San Martín)	2
Billabona (Santiago)	3
<b><i>Urria-Abendua</i></b>	
Andoain (San Juan Bataiatzailea)	6
Arrasate (Iturbide)	10
Azkoitia (San Jose)	1
Bergara (Mizpirualde)	10
Eibar (San Andres)	7
Elgoibar (San Lazaro)	6
Errenteria (Jesusen Bihotza)	8
Hernani (Santa M <sup>a</sup> Magdalena)	5
Irun (Ama Xantalen)	4
Lasarte-Oria (Atsobakar)	14
Oñati (San Martín)	10
Oñati (San Martín) E.Z.	4
Tolosa (Iurreamendi)	9
Villabona (Santiago)	5
Zumaia (San Juan)	7
<b>Guztira 2021</b>	<b>151</b>
<b>Guztira 2020</b>	<b>189</b>

E.Z.: eguneko zentroa

Iturria: KABIA eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiketako Departamentua, 2021/12/31.

## 2.2. ORDIZIAKO COVID ZENTROA ETA BILAKAERA

COVID 19ko krisiak Gipuzkoan egoitzetan diagnostikatutako positibo kasuen arreta egoitzetatik kanpo egitearen beharra ekarri zuen. Helburua egoitzetan ahal zen heinean bizitza normalizatu bat mantentzea zen eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean Ordiziako San Jose egoitza isolamendu zentro erabilerara egokitu zen 2020ko udazkenerako.

1go epealdian (hurrengo taulan ikus daitezke epealdiak), 2020ko urriak 16 eta 2021eko martxoak 17, 195 pertsona artatu ziren Covid zentroan, batez besteko adina 83 urte izan zen eta erabiltzaileen batez besteko egonaldia 17 egunekoa izan zen. Artatutakoen %81a emakumezkoak izan ziren eta %19a gizonezkoak.

2021eko martxoak 18tik aurrera, epealdi ezberdinak kontutan izanda, egoitzak eman dituen egonaldiak ondorengoa izan ziren:

EGONALDI/ZERBITZU MOTA				
	EPEALDIAK	COVID ZENTRUA	ALDI BATERAKOAK	PLAZA EGONKORRAK
1	2020.10.16-2021.03.10			
2	2021.03.11-2021.05.19			
3	2021.05.20-2021.06.28			
4	2021.06.29-2021.07.25			
5	2021.07.26-2021.10.05			
6	2021.10.06-2022.01.18			

- **Aldi baterako egonaldiak:**

Aldi baterako egonaldiak, urte osoan zehar eskaintzen den zerbitzua da. Bere helburuak dira zaintzaileak: a) Bere denbora izatea atseden hartzeko, suspertzeko, aisiarako eta, orokorrean, autozainketarako eta garapen pertsonalerako, edo, era berean, bere zaintza-eginkizunek betetzea eragozten dioten premiazko egoeraren bati aurre egiteko. b) Zaintza-lanei lotutako esfortzu txikiagoa izatea; era horretan gainkargako egoerak eta estres-egoerak eta zaintzailearen osasunean sor litezkeen narriadurak prebenituz.

97 erabiltzaile izan ziren. Erabiltzaile honen profila 86 urteko menpekotasun altuko emakumea izan zen. Batezbesteko 34 eguneko egonaldiak egin zituzten erabiltzaileek.

- **Behin-betiko egonaldiak:**

Egoitzako plaza finkoak dira. Covid zentro irekieragatik beste egoitzetan jarraitzen zuten 20 egoiliarrei, Ordiziara itzultzeko aukera eman zitzaizen, eta haueetatik 14 berriro Ordiziako egoitzara bueltatu ziren. Ondoren, plaza mota haueetan mugimenduak eman ziren. Horrela, artatutako egoiliarraren profila mendekotasun maila altuko 90 urteko emakumezkoa izan zen.



### 2.3. COVID 19 PLANA

2021.urteak egoitzak urtean zehar eman diren protokolo eta jarraibideen etengabeko aldaketetara egokitzen jarraitu behar izan dute.

“Normaltasun berrira” egokitu beharrak egoitzak antolatzea ekarri zuen, senideen bisitak jasotzeko eta egoiliarren irteerak bermatzeko. Covid 19aren kontrako segurtasun neurriek eskatzen zutena betetze aldera, egoitzetan hainbat egokitze eta, kasuan kasu, inbertsioak egin behar izan ziren, besteak beste, txertaketa zirutagiriaren QR irakurketa egiten zituzten gailuak. Gainera, unean uneko egoitzako, udalerriko edo eskualdeko egoera epidemiologikoaren arabera, bisitak eta irteerak murriztu edo eteten behar izan dira eta horrek egoera zailak egotea sorrarazi du.

Normaltasun berri horretan, dinamizazio kanpo ekintzak berreskuratzen hasi ginen: bolondresen partehartzea, herriko kultur taldeen parte hartzea, ekintzak bereziak eta bestelako ekintza guztiak, sektoreka eta unean uneko neurriei jarraiki.

Langileen kudeaketaren ikuspuntutik, lan prebentzio arloan lanean jarraitu zen, egunean eguneko protokoloak eta jarraibideak aurrera eramanez. Urtarrilean, egoiliarren txertaketarekin batera, langileena ere hasi zen. Honek, egoitza bakoitza Osakidetzarekin koordinatzea ekarri zuen. Era berean, langileekin komunikatu eta egunean eguneko informazioarekin, GIZANET aplikazioa elikatzeko betebeharra zegoen. Aplikazio honek, txertaketa kontrola eramanez gaiz, aldiro programatu ziren listu frogak burutzeko beharrezkoak ziren bolanteak ateratzeko ere balio izan zuen. Guzti horretaz gain, NBE (Norbera Babesteko Ekipamendua) hornidura beharrak asetzea, sektorizazioa, eta oro har, krisi egoerari aurre egiteko onartutako arau, prozedura eta jarraibide berrietara eta horien aldaketetara egokitzeko beharra egon zen Covid 19ari behar bezala aurre egin ahal izateko.

## 3. BATERATZE PROZESUA ETA AZKEN EGOITZAREN INTEGRAZIOA

### KABIAn 16 egoitza: integrazio prozesuaren amaiera.

2021eko azaroaren 1ean Hernaniko Santa María Magdalena egoitza integratu zen KABIAn 2015ean hasitako integrazio prozesuari amaiera emanez. Integrazio hori ezin izan zen lehenago burutu Hernaniko Santa María Magdalena bi hautaketa prozesutan murgilduta zegoelako. Urte bukaera zaila izan zen, egoitza handia izateaz gain, langile funtzionario kopuru handia duen egoitza izanik egokitzea konplexua izan zelako. Gainera, Hernaniko Gizarte Zerbitzuak eraikinean obra batzuk egitearen ondorioz, aldi baterako bulegoak partekatu behar izan ziren, espazio aldetik lan egiteko zailtasun handiak sortuz. Bestetik urte amaieran eta 2022ko hasieran Covid 19ko omicron aldaerak sortutako egoerak are zailagoa bihurtu zuen egokitze prozesua.

### Zerbitzu Zentraletako egitura.


KABIako Zerbitzu Zentraletan Asistentzia Arloko lan taldea osatzeak, egoitzei laguntza eta babesa emateko garrantzitsua izan zen, baita haien jardueraren jarraipen egokiagoa egiteko ere. Egoitzen bateratze prozesua bideratzeko ezinbestekoa izango da ere bai. Beste arloak indartu ziren ere bai, baina, Hernaniko egoitzaren integrazioaren ondorioz egokitze prozesuari lehentasuna eman zitzairen.

Langileen kudeaketaren ikuspegitik, 2021eko abenduak 28an onartu zen 20/2021 Legeak eragin handia izango du KABIAn datozen urteetan.

## Hizkuntzaren kudeaketa eta pertsonan oinarritutako arreta.

Hizkuntza berdintasunari dagokionez, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzarekin elkarlanean, “Pertsonan oinarritutako arreta: Hizkuntzen kudeaketa KABIako adinekoren egoitzetan eta eguneko zentroan” dokumentua prestatu eta argitaratu zen hainbat formatuetan: luzea, triptikoa eta bideoa. Bertan jasotzen den ideia nagusiaren arabera kalitatezko zaintza eta pertsonengan oinarritutako arreta, eta horiek ezin dira ulertu hizkuntza berdintasuna kontuan izan gabe. Erabiltzaile askorentzat oinarri-oinarrizkoa da behar duten asistentzia beren lehen hizkuntzan jasotzea, askoren kasuan, euskaraz. Arreta eta komunikazioa norbere hizkuntzan bermatzeak, adinekoei aukera ematen die autonomoago eta duintasunez bizitzeko.

Mezua hau zabaltze aldera, hainbat eragileen estrategikoei banatu zitzaizkien dokumentua: lanbide heziketako eskola, egoitzak, langileak, zerbitzu enpresak, sindikatuak, unibertsitateak, euskara normalkuntza teknikariak, etab..



2021eko kudeaketa planean jasotako urteko helburuen betetze maila eranskinean jasotzen da.

#### 4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA

##### 4.1. GASTUAK

KABIA foru organismo autonomoan, 2021. urtean zehar egindako gastuen banaketa beheko taulan ikus daiteke.

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Oblig.	
			€	%
1. Langileria gastuak	16.265.737	13.888.496	11.450.689	82,2
2. Ohiko gastuak	40.870.279	42.870.279	40.613.052	94,7
6. Inbertsio errealak	1.000.000	1.557.241	1.182.179	75,9
<b>Gastuak Guztira</b>	<b>58.136.016</b>	<b>58.136.016</b>	<b>52.215.920</b>	<b>91,3</b>

Hernaniko egoitza 2021eko azaroak 1ean sartu zenez, 1. kapituluan soberakinak eta 2. kapituluan eta 6.ean berriz beharrak egongo zirela ondorioztatu zen. Hori dela eta kreditu gaikuntza eta transferentzia bat egin zen Ogasun Departamentuaren oniritzia jaso ondoren. Horrela, 1. Kapituluko 2.377.241 euro, 2. kapitulura (2.000.000€) eta 6. kapitulura (377.241 €) bideratu ziren.

Aurrekontuaren likidazioari dagokionez, aurrekontuaren %91,3an likidatu da. Bigarren kapituluan izan da gastuaren proportziorik handiena, bereziki egoitzetako zerbitzu eta hornidura kontratuetako gastu finkoen ondorioz sortutakoa baita. Kreditu gaikuntza hori egin zen arren, aurrekontuaren emaitzak erakutsi du aurreikuspena nahiko zehatza izan zela.

Seigarren kapituluan egindako gastua aurrekontuaren %75,9 izan da, proportzioan kapitulu guztien artetik txikiena, baina 2020 urtearekiko inbertsio portzentajea handitze lortu da. Inbertsioetan zailtasunik handiena lizitazioak bideratzeak sortzen dituen tramitazioan oinarritzen da gehienbat.

Egoitzaka egindako inbertsioei dagokienez, hurrengo taulan mota bakoitzean egindakoak zehaztuta jasotzen dira.

Hernaniko egoitzaren kasuan, 2021ko azaroaren 1ean sartu zen KABIARA eta horren ondorioz informatikako ekipamenduak berri behar izan ziren. Andoainen energia sorkuntza sistema hobetzera zuzendu zen horretara ordura arte zegoen galdaren ordezkari berri eta eraginkorragoa instalatuz, eta gaur egungo eguzki-instalazio termikoa birgaituz. Inbertsio hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuarekin elkarlanean bideratu zen, hitzarmen baten markoan. Tolosako egoitzan egindako inbertsioa kanpoko saneamendu-sareak eraberritzea zuzendu zen.

Inbertsioak: ibilgetu materiala	Makineria Tresneria	Ibilgailua	Altzariak	Informatika ekipamenduak	Eraikuntzak	Guztira
Zerbitzu Zentralak	1.852	15.911	11.704	121.837	0	151.304
Andoain	256.822		19.259	272	4.726	281.079
Arrasate	8.002		11.289	272	0	19.563
Azkoitia	36.472		11.071	0	10.259	57.802
Bergara	18.612		14.055	272	41.233	74.172
Eibar	11.721		25.785	272	52.081	89.859
Elgoibar	2.503		191	0	0	2.694
Errenteria	20.668		11.991	136	0	32.795
Hernani	4.504		1.111	7.926	0	13.541
Irun	21.747		74.533	272	0	96.552
Lasarte	10.855		9.579	0	0	20.433
Oñati	38.412		4.957	0	0	43.369
Ordizia	11.719		462	0	0	12.181
Pasaia	11.581		25	0	0	11.606
Tolosa	161.003		33.380	545	0	194.928
Villabona	5.342		23.028	0	5.940	34.310
Zumaia	14.738		31.253	0	0	45.990
<b>Guztira / Total</b>	<b>636.553</b>	<b>15.911</b>	<b>283.674</b>	<b>131.804</b>	<b>114.238</b>	<b>1.182.179</b>

#### 4.2. DIRU SARRERAK

KABIAk, 2021. urtean izandako diru sarrerak beheko taulan jasotzen dira:

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Eskubid. Garbiak	
			€	%
3. Tasak eta bestelakoak	18.799.052	18.799.052	16.079.843	85,5
4. Transf. arruntak	38.336.964	37.959.723	37.579.194	99,9
7. Kapital-transferentziak	1.000.000	1.557.241	1.557.227	100
<b>Sarrerak Guztira</b>	<b>58.136.016</b>	<b>58.316.016</b>	<b>55.216.264</b>	<b>94,7</b>

Kopururik handiena transferentzia arrunten bidez jasotakoari dagokio.

**ERANSKINA. KABIako KUDEAKETA PLANA: HELBURUEN BETETZE MAILA**

Kudeaketa planeko ekintzen betetze maila ulertzeko, koloreek ondorengo esanahia dute:

Ez da egin
  Hasi da, amaitu gabe
  Urteko helburua egina

Helburu estrategikoak	Lanildoak	Betetze maila
<b>ZERBITZU ESKAINTZAN ERREFERENTE IZATEA</b>		
Pertsonarengan oinarritutako zerbitzua egoitza guztietan ematea	Aldundiko arreta eredu berrira egokitu, pertsonen bizi-kalitatea erdigunean ipinita	
	IKTen bitartez erabiltzaileekin komunikazioa eta jarduerak bultzatu	
	Erabiltzaileen eta senideen partaidetza bultzatu	
Larrialdi sanitarioen prebentzioa eta hauei aurre egitea	COVID plana betetzea	
	Larrialdi sanitariotik ikasitakoak eta hutsuneak identifikatu	
Hizkuntza eta genero berdintasunaren bultzatzaile	Euskara zerbitzu, lan eta komunikazio hizkuntza izan dadin indartu eta bultzatzen jarraitu	
	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean lana egin	
Hornitzaile estrategikoekin lankidetzatza	Zerbitzu enprekin koordinazioa eta komunikazioa mantendu	
	Kudeaketa integraleko egoitzekin eduki beharreko harremanaren irizpideak finkatu	
Egoitzetako instalazioak egoera hobereanean eduki	Inbertsio plana egin	
	Instalazioen mantenimendu egokia egiten dela bermatu	
	Efizientzia energetikoko neurriak ezarri	
<b>BATERATZE PROZESUAREKIN JARRAITU</b>		
Azken zentro publikoen integrazioa KABIAN	Irungo egoitza KABIAN integratu	

Helburu estrategikoak	Lan ildoak	Betetze maila
	Hernaniko Egoitza KABIAN integratu	
KABIaren jarraibide komunak definitu	Prozesu maparen lan prozedurak bateratu eta inplantatu	
	Aplikazio informatikoak garatu, bateratu eta integrazioak landu	
	KABIaren aginte koadroa garatu	
	Zerbitzu Zentralen eta Egoitzen arteko koordinazioa hobetu	
<b>KUDEAKETA ZORROTZA SUSTATU ARLO EKONOMIKOAN, ASISTENTZIALEAN ETA LANGILERIAN</b>		
Langileen ongizatea eta motibazioa sustatu	Langileen prestakuntza plana	
	Lanpostuen zerrenda bateratua	
	KABIaren lan baldintzak onartu (hitzarmena)	
Kontratazio prozesua indartu	Kontratuen baldintzen betetzearen jarraipen zorrotzarekin jarraitu	
	Kontratazio plana egin eta gauzatu	
	GFA, GP Departamentuarekin eta Uliazpirekin kontratazio arloan elkarlana eta koordinazioa indartu	
KABIaren egitura egokitu eta osatu	Organigrama egokitu eta osatu	
Aurrekontuaren kudeaketa eraginkorra	KABIaren estatutuak egokitu	
	Erabiltzaileen zorren kudeaketa adostu	
	Kabiaren gastuen kontrola: kudeaketa ekonomiko egokia egin eta jarraipena egin helburuak lortzeko	
<b>KABIAREN POSIZIOA INDARTU ETA HARREMANAK LANDU</b>		
	GFA eta KABIaren arteko lankidetzako gobernanzako mekanismoak garatu	

Helburu estrategikoak	Lan ildoak	Betetze maila
GFA eta KABIaren harreman markoa zehaztu eta lankidetzako gobernantza indartu	GP Departamentua eta KABIaren arteko lankidetzako gobernantzako mekanismoak garatu	
	Foru Sektore Publikoa eta KABIaren arteko lankidetzako gobernantzako mekanismoak garatu	
Egoitzak dauden udalekin lankidetzako gobernantza mekanismoak garatu	Udalekin eta herriko eragileekin proiektuak garatu	
	Udalekin hitzarmen berriak sinatu eta sinatutakoen betetzearen jarraipena egin	
Beste eragileekin elkarlana	Adinekoen elkarteekin elkarlana egin eta adinekoen kontseiluan parte hartu	
	Beste egoitzekin elkarlana bideratu (praktika onak partekatu)	
	I+G+b ekintzetan parte hartzeko eskaera badago, parte hartu	
Gizarteari proiektatzen zaion irudia landu	Kudeaketa onaren kontu ematea (web gunea berritu)	
	Hedabideak: sektorea eta langileen lana balioan jarri	